



GIPUZKOAKO A.O.—2013ko ekainaren 5a 106 zkia

Udal Bibliotekan ordenagailuak erabiltzeko Araudia:

Beasaingo Udal Bibliotekan Interneterako sarbidea duten ordenagailuen erabilpena honako baldintza hauekin egingo da:

1. Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko bazkidea izatea beharrezkoa izango da.
2. 12 urte bitarteko pertsonak zerbitzu horiek erabiltzeko amaren, aitaren edo tutorearen baimen sinatua beharko dute.
3. Ekipoak banaka erabiltzeko dira.
4. Ordenagailuak liburutegian onargarriak diren gauzetarako soilik erabiliko dira:
—Sarean informazioa aurkitzeko eta ofimatikako paleteta erabiltzeko, jabetze intelektuala, copyrighta eta lizentziak errespetatuz.
—Ezin da jolastu, ez eduki pornografikoak, bortitzak edo xenofoboak dituzten orrialdeetan sartu, ez eta arau-hauste penala ekar dezakeen atzialdirik egin ere.
5. Bibliotekako langileek bibliografiari eta erreferentziei buruzko aholkua emango dute, baina ez dute inola ere laguntza teknikorik emango.
6. Ordenagailua pertsona bakoitzak egunean ordu batez erabil dezake gehienez.

Tasak:

—15' arte dohanik.

—15' tik 60' = 0.50 €

7. Inprimakiak behar izanez gero, **gehienez 10 orri inprimatu** ahal izango dira.

Tasak:

—0.10 € kopia bakoitzeko.

8. Ordenagailuaren soinua erabiltzeko bakoitzak bere entzungailuak erabili beharko ditu.

9. Erabilpena eskatzen duenak arduratu beharko da ordenagailua zaintzeaz eta behar bezala erabiltzeaz. Ezin izango du manipulatu, ezta kanpoko programarik instalatu ere.

10. Arau horiek betetzen ez badira, zigorrak ezarriko dira, ordenagailuen erabilpenerako eskubidea kenduz ondoko baremo honen arabera:

—Arau-hauste oso larria izango da:

Ordenagailua suntsitu edo hondatzea, eskabidea eperik zehaztu gabe eteteaz gain, bazkideak ordaindu beharko du ezaugarri berberak edo antzekoak dauzkan ordenagailu berri bat erosteko kostu ekonomikoa. Beasaingo Udalak erabaki eta bete beharko du neurri hori.

—Arau-hauste larria izango da:

Ordenagailua manipulatzeko edo kanpoko programak instalatzeko, jabetza intelektualari, copyrightari eta lizentziei kalte eginez erabiltzea, eduki pornografikoa, bortitza edo xenofoboa duten orrialdeetan sartzea, eta erabilpena eskatu duena ez den beste pertsonaren batek erabiltzea. Arau-hauste horregatik erabilpen eskubidea eten egingo da urte beterako.

—Arau-hauste arina izango da:

Bibliotekan lasaitasunari edo ordenari kalte egiten dion portaera desegokia izatea. Bibliotekako langileek pertsona hura hasieran horretaz ohartaraziko dute, eta araua hausten jarraitzen badu zehapena ezarriko diote; horrenbestez, ordenagailuen mailegurako eskubidea eten egingo da 6 hilabeterako.